

GAZTEDIAREN ALDEKO AKORDIOA

**30 EKINTZA
GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO
ETA FAMILIEN ALDE**

EAJ-PNV.EUS



eman botoa
vota

eaj
pnv

GAZTEDIAREN ALDEKO AKORDIOA

Gure gizarteak aurre egin behar dion desafio nagusietako bat gazteek bizitza proiektu independente bat egiteko eta euren familia ideia garatzeko duten zailtasuna da. Errealitate honek zuzenean jotzen du jasaten ari garen beheraldi demografikoan.

Euskadin, jaiotza tasaren jaitsiera, amatasun adinaren igoera eta bizi luzetasun handiagoa biztanleria zeharo zahartzearen eragile izan dira. Trantsizio demografiko-sozial hori, Euskadin ez ezik, Europa osoan lehen mailako erronka da.

Arazo horri ekiteak lehentasuna du Euskadin. Urgentea eta garrantzitsua da; baina epe ertain eta luze-ko ikuspegia ere hartu behar zaio. "Begirada luzea", zenbait hamarkadatan gizartea gaztetuko duena.

Ikuspegi honek gizarte eraldaketa sakona bultzatzea eskatzen du, osotasuneko ikuspegiarekin: etxebizitza, enplegua eta gaitasunen garapena. Erakundearteko eta gizarteko estrategia bat behar du, sektore publikoa, enpresa, hirugarren sektorea, familiak eta bereziki, bere etorkizunaren protagonista, gazteria inplikaturako dituen.

Estrategiaren eta ekintzen multzoak genero ikuspegia hartu behar du kontuan. Pertsonak euren amatasuna/aitatasuna euren bizitza proiektuaren beste alderdi batzuekin aldi berean egin ahal behar dituzte.

Erronka hau hobekuntza aukera gisa jorratu daiteke.

EAJtik Herri Akordio handi baten hautua egiten dugu, gazteen emantzipazioari, familiei eta umeak arduraz izateari laguntzeko politikiei lehentasuna emateko.

Ibilbia dute bide luze bat norabide horretan azken urteetan euskal herri erakundeek. Eusko Jaurlaritzak, Familiei Laguntzeko Erakundearteko IV. Planaren 3. helburuaren ildotik, gurasotasun baimenen arloan, adibidez, jarrera aitzindaria eta Europar Batasuneko politika aurreratuenetara hurbiltzekoa hartu du.

Foru aldundiek eta udalek euren eskumen esparruan norabide berean orientaturiko ekintzak egiten dituzte. Orain ibilbide hori sendotu eta areagotu nahi dugu. Lehen urrats eraikitzaile bat, ildo horretan, Gazte Akordio batekin erantzutea da.

Akordio proposamen horrek **30 ekintza** jasotzen ditu gazte emantzipazioaren eta familien alde, erlantzionatutako **7 bloke tematiko** osagarritan bilduta: enplegua, etxebizitza, prestakuntza, umeak izateari laguntzea, bateratzea, aurre-eskolaratzea, eta familietan inbertitzea.

Begirada luzeko akordio sozial, politikoa eta erakundearteko bat da, helburu nagusi batean kontzentratzen dena: gure gazteak emantzipatu eta bizitza proiektu autonomo bat egin ahal izateko, eta nahi duten seme-alaba kopurua izan dezaten, baldintza egokiak sortu, gurari hori betetzea oztopatzen duten barrera ekonomikoak murriztuz.

EAJtik kultura eta gizarte aldaketa bat aldarrikatzen dugu, trantsizio demografiko eta sozialari paradigma berrietatik aurre egiten laguntzeko. Gure gazteen emantzipazio ahalmena sustatzeko Akordioa.

30 EKINTZA

GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO ETA FAMILIEN ALDE

I ENPLEGUA

1. "Gazteen enplegu plana" onartu
2. Hezkuntza mundutik lan mundura igarotzea erraztu
3. Bazterkeria arriskuan dauden gazteak lan munduan sartzea areagotu, hirugarren sektoreko antolakundeen eta enpresen bitartez
4. Gazteen ekintzailtza bultzatzeko leihatila bakarreko estrategia bultzatu
5. Tokiko eta lurraldeko enplegu planak indartu, bereziki langabezia indize handienak dituzten lehentasunezko arreta eskualde eta eremuetan
6. "Gazteak itzultzeko" programa, Euskadira itzuli nahi duten familia gazteak barne
7. Berariazko eta gorakako sektoreetan gazteen enplegua aktibatzeas
8. Gazteen lan orientaziorako ibilbide pertsonalizatuak Lanbiden
9. Euskadin lan merkatuaren berariazko erronkei erantzungo dien Lanbide Heziketa dualaren eredia hedatu

II ETXEBIZITZA

10. Etxebizitza babestuen % 50eko lehentasunezko erreserba kupoa gazteentzat, eta ehuneko bat 0tik 6 urtera bitarteko seme-alabak dituzten bikote gazteentzat
11. Gazteak emantzipatzeko laguntzak, etxebizitzak alokatzeko gastuak ordaintzeko
12. Leihatila bakarra sustatzea, gazteei emantzipatzen laguntzeko programa guztiak eskaintzeko, bereziki etxebizitzaren eta enpleguaren esparruan.
13. Bizikidetzat hautabide berriak bultzatu: gazteek partekatutako etxebizitzak, adinekoek eta gazteek partekatutako etxebizitzak, kulturarteko etxebizitza partekatuak eta hiriko etxe amaitearia

III PRESTAKUNTZA

14. Kontratazeko konpromisoa duten prestakuntza beka
15. Prestakuntza areagotu enpleguaren kalitatea hobetzeko: prestakuntza pilula espezifikoak, heziketa ibilbideak eta prestakuntza egokia
16. Kualifikazio apaleko gazteentzako enplegurako prestakuntza programak
17. Diziplina zientifiko eta teknologikoetan prestakuntza areagotzea, batez ere emakume gazteengan

30 EKINTZA

GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO ETA FAMILIEN ALDE

IV BATERATZEA

18. 16 asteko aitatasun eta amatasun baimen berdin eta eskualdatu ezinak eremu pribatuan
19. Enpresei laguntzeko programak, zaintza lanak egiteko eszedentzia edo lanaldi murrizketa hartu duten langileak ordezkatzeko
20. Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileen kontrataziorako laguntzak
21. Ordutegien arrazionalizazioa sustatu, bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzea errazteko
22. Akordio soziala bultzatu euskal enpresekin, uztartze neurriak orokortzeko

V UMEAK IZATEARI LAGUNTZEA

23. Ardurapeko alaba edo seme bakoitzeko laguntza ekonomikoak handitu
24. Seme-alabengatiko zerga kenkariak areagotu, foru aldundiekin adostuta
25. Haurdunaldian eta umearen lehen bizitza urtean emandako laguntzak indartu

VI AURRE-ESKOLARATZEA

26. Ume guztiek 0tik 3 urtera bitarteko haurren arretarako zerbitzu irisgarriak jaso ditzaketela bermatu
27. Landa eremuko haur eskolen modernizazioa eta egokitzapena bultzatu

VII FAMILIETAN ETA HAURETAN INBERTITZEA

28. Familiei eta haurrei laguntzeko erakundearteko plana indartu
29. Familien eta haurren aldeko gizarte-sentsibilizazioko kanpainak sustatzea
30. 0tik 6 urtera bitarteko umeen zaintza eta heziketarako laguntza formaleko sistema osoa, familiekin batera